



ALBOAN 02 koadernoak:

Ura, nekazaritza eta adivasi kultur nortasuna

Sarrera

Indiako Gujarat eskualdeko Surat barrutiko herrixketan bizi den **adivasi herriak** bere elikadura, higiena eta familien hezkuntzako premiei erantzuteko, egunero egin behar die aurre zailtasun ugariari. Euskadiko **ALBOAN** GGKEak eta Indiako beste erakunde batzuk –esaterako, **Legezko Laguntza eta Giza Eskubideen Zentroak (Legal Aid and Human Rights Centre, LAHRC)**– eskualdean bertan lan egiten dute biztanleei egoerari buelta ematen laguntzeko eta adivasi herriari etorkizun hobea izateko aukera eskainiko dioten garapen prozesuak abian jartzeko.

2005. urtean, ALBOANek eta LAHRCk **identifikazio prozesu** bat jarri zuten abian adivasi herriaren garapena oztzatzen zuten arazo garrantzitsuenak zehazteko. Horretarako, bilerak egin ziren sei *talukako* (unitate administratibo txikiena barrutiaren barruan) Herri Erakundeekin (HE) eta inkestak eta tailerrak gauzatu ziren hainbat talderekin (nekazariak, arrantzaleak, agintariak eta abar), beren bizi baldintzei buruzko informazioa biltzeko. Horretaz gain, bilera espezifikoak egin ziren emakumeekin, beldurrik eta lotsarik gabe hitz egin zezaten, gizonen begiradatik at. **Metodologia parte hartzailea** erabili zen, kasu honetan mapa sozialak (lurraldeko taldeen, elkarten eta kolektiboen zein haien arteko harremanen irudikapen grafikoa), *talukatako* biztanleriaren sektore ezberdinetako kideen premiak eta kezak aintzat hartuko zirela bermatzeko.

Identifikazio horretan argi geratu zen arazo nagusien jatorria ur eskasian eta nekazaritzako produktibitate txikian zegoela, eta horiek konpontzeko biderik onena azpiegiturak jartzea eta komunitate elkarteak indartzea zela. Era berean, nahitaezkoztat jo zen adivasi nortasuna sendotzea, tokiko garapenarekin loturiko edozer ekimen eraikitzeke oinarri gisa.

Aurreko guztiarekin, 2005 eta 2008 artean garapenerako lankidetzako proiektu bat gauzatu zen guztira 30.000 pertsona baino gehiago biltzen dituzten Gujarateko 6 *talukako* 30 herrixketan, ondorengo hiru estrategien bitartez:

1. Ur hornidurarako azpiegitura hobetzea

Inguruko topografia eta herrixken kokapena aztertu ondoren, proiektuko talde teknikoak eta adivasi herriaren ordezkariak mendixken malda baliatzea erabaki zuten, euste hormak, presa txikiak eta drainatze kanalak eraikitzeke.

- **Euste hormak** harriekin eta lurrarekin eraikitzen dira, eta mendixkaren azaletik jaisten den euri ura hartzeko eta pilotzeko aukera ematen dute, ondoren soroak ureztatzeke erabiltzeko; eta, horretaz gain, lurra hezeten dute eta ura lurreko geruza freaticoetan sar dadin errazten dute.



HEkin bilera proiektuaren identifikazio prozesuan zehar



Kolaborazio lana hormak eta presak eraikitzeko

- Ibaien ibilguetan eraikitako **presa txikiek** uraren abiadura moteltzen dute, hala eragindako higadura txikiagoa da eta ura lur barruan sartzea errazten da.
- Mendiaren maldarekiko perpendikularrean zulaturiko **drinatze kanalek** soroak ureztatzetik sobratutako ura jaso eta beheagoko lurretan kokaturiko beste lursail batzuetara bideratzen dute, uraren aprobetxamendu hobea egitea erraztuta.

Guztira, 2.500 hektareatik gorako azalera hartzen duten hormak eraiki ziren; 55 presa txiki konpondu ziren eta 21 berri eraiki, eta 149 kilometro drinatze kanal eraiki ziren.

Bestalde, gutxi gorabehera 140 **ur putzu** konpondu ziren eta 38 berri ireki uraren maila 5 eta 10 metro arteko sakontasunean zela egiaztatzen lekuetan.

Lan horiek gauzatzeko lurra berdindu, zulatu, materialak garraiatu, harriak jarri eta bestelako jarduera batzuk egin behar izan zituzten bai herrixketako gizonek, bai emakumeek, guztiak lantaldetan antolatuta. Aurretik ere inguruan lan egin zuen eta tokiko hizkuntza ezagutzen zuten Surateko barrutiko ingeniartzako profesional talde batek egin zituen alde aurreko azterketak, eta beraiek zuzendu eta koordinatu zituzten eraikuntza lanak.

Azpiegitura berri horri esker, bermatuta dago biztanleriaren etxeko erabilerarako ura (elikadura eta higiena), eta 1.357 nekazari familiaren soro landuak urezta daitezke; horrek guztiak ondorio positiboak dakartza elikadurarako eta diru sarrerak sortzen ditu, soberakinen salmentaren ondorioz.

Uraren aprobetxamendu jasangarri horrek gizakion premien (kontsumoa eta nekazaritzako ekoizpena) eta natur ingurunearen (animaliak eta landareak) premien arteko oreka ahula leheneratzea ahalbidetu du.

2. Ekoizpen tekniken, baliabideen eta inputen hobekuntza


Azpiegitura berrien bitartez ureztatzeko ura eskuratzeko aukera bermatu ostean, ezinbestekoa zen **nekazaritzari buruzko jakintza eta input berriak** edukitzea, nekazaritzako ekoizpena hobetu ahal izateko eta baliabide faltagatik alde batera utzitako laborantzarako zenbait lur berreskuratu ahal izateko.

Horretarako, honako jarduera hauek gauzatu ziren:

- **Prestakuntza teorikoa eta praktikoa** ingurumenarekiko hain agresi-boa izango ez den eta epe luzera jasangarriagoa izango den nekazaritzako praktika berriak ikasteko; esaterako, ongarrien, simaurren eta plagiziden neurrizko erabilera. Ikastaro horiek tokiko hizkuntza ezagutzen zuten eta ikaskuntza hobea ahalbidetzeko batik bat metodologia praktikoa erabiltzen zuten profesionalak eman zituzten.



Putzu berrien eraikuntza teknika tradizionalak erabilia



Ur banaketa etxeko erabilerarako

- **Nekazari familientzako diru laguntzak**, kalitate oneko haziak erosteko eta lurraren eta klimaren baldintzetarako egokiak diren barietate berriak sartzeko, hala nekazaritzako biodibertsitatea hobetzeko eta dieta aberasteko. Laguntza horiekin, gainera, lurraren propietatei kalterik eragiten ez dieten ongariak eta simaurrak erosi ahal izan dituzte.
- Aurreko proiektuetan trebaturiko eta ikasitako teknikak erabiltzen ari ziren eskualdeko nekazariei zuzenduriko **bisita erakusgarriak**. Bisita horiei esker esperientzia trukeak egin ahal ziren, eta zuzenean egiaztatu ahal izan ziren lor daitezkeen emaitzak.
- **Basoberritzea**, 24 hektareara artekoa, putzuetatik gertu dauden eremuetan lurraren hezetasuna hobetzen laguntzeko, ekologikoki iraunkorrak diren espezieekin; esaterako, teka, Indiako akazia, banbua eta mimosa.

Proiektuak gauzaturiko basoberritzeko eta nekazaritza ekologikoko praktikak eragin zuzena izan zuten inguruko basoen eta lurren osasunean, eta gainera, nekazaritzako kimikoen bidezko uraren kutsadura arriskua gutxitu zuten, eta lurren euri ura xurgatzeko gaitasuna hobetzen lagundu zuten.

Proiektuaren esku-hartzeak **mikroarro hidrografiko ikuspegi** bat izan zuen; hau da, herrixka bakoitza banan-banan hartu ordez, partekaturiko eremu hidrologikoa hartu zen aintzat, hainbat herrixkak partekatzen baitute mikroarro bereko ura, eta guztiek batera egin behar baitzieten aurre presa handiaren eraikuntzak, lehorteek eta abarrek eragindako ondorioei.

Genero ikuspegia zeharkakoa izan zen jarduera guztietan; hala, prestakuntza saioetan, bileretan eta bisitetan irakasleek arreta berezia eskaini zieten **emakumeei, haien parte hartze aktiboa (kontsultak eta iruzkinak egitea edo ikuspegi pertsonala eskaintzea)** errazteko. Horri esker, emakumeek gero eta konfiantza handiagoa dute beren iritziak azaltzerakoan, eta gizonak ere haien ekarpenen garrantzia aitortzen joan dira, pixkanaka.

3. Herri Erakundeak (HE) eta adivasi nortasuna indartzea

Ur azpiegitura berriaren funtzionamendu eta mantentze egokia bermatzeko, adivasi herritarrek **Ur Batzorde** bat eratu zuten herrixka bakoitzean, zeuden HEn baitan. Batzorde horren zeregina mantentze lanetako jarduerak programatzea eta gauzatzea da, baita azpiegitura konpontzea eta herritarrei gertaturiko gorabeheren berri ematea ere. Ur Batzordeen barruan sartzen dira **Aurrezki Batzordeak**; azken horiek mantentze eta konponketa lanek eragindako gastuak estaltzeko funtsa kudeatzen dute. Biltzar batean honako erabaki hau hartu zen: ureztatzeko ura jasotzen duen nekazari bakoitzak bere diru sarreren % 10 eman behar diola adierazitako funtsari.



Tokiko ingeniari bat eraikuntza lanak gidatzen



Basoberritzeari eta uraren kudeaketari esker, eremuko landaredia leheneratzen ari da



Gizonak eta emakumeak mobilizatzen dira beraien eskubideak eskatzeko



Adivasi gazteak beren jantzi tipikoekin

pen tipikoak (abestiak, kaleko antzerkiak, dantza, eta abar), ohikoagoak dira orain, eta beren jatorriagatik harrotasun sentimendua indartzen laguntzen dute.

Azken batean, proiektu honen bitartez, adivasi herriak gizarte arloan, kulturaren, ekonomian eta ingurumenari begira beren eskubideak eta aukerak garatzeko prozesuaren oinarriak ezartzea lortu du.

Ur Batzordeek behar bezala funtzionatzeko, hura osatzen duten pertsonak honako gai hauen inguruko **trebakuntza ikastaroetara** joan ziren: administrazioa (kontabilitatea, oinarrizko kudeaketa eta antolatze gaitasunak), eskubideak eta betebeharrak, genero ekitatea, eta urarekin loturiko azpiegituren eraikuntza eta mantentzea –esaterako hormak, zangak eta putzuak–.

Proiektuaren bitartez, Ur Batzordeen eta gainerako HEN **osaera parekidea** izan dadin sustatu da; hau da, gizon eta emakume kopurua bera izan dadila. Emakumeek beren buruengan duten konfiantza hazten ari da eta beren parte hartzea aktiboagoa da. Emakumeak pixkanaka komunitatearen erabakitzeko guneetan sartze hori ikusgarritasun handiagoa ematen ari zaio emakumeek komunitatearen garapenean betetzen duten rol garrantzitsuari.

Batzorde horiek komunitateen antolamendu egituraren barruan sartuta daude, HEkin batera, eta lankidetzan aritzen dira komunitateetako liderrekin eta talukatako agintariekin. Egun HEk modu eraginkor eta arduratsuagoan funtzionatzen dute, eta biztanleriaren aintzatespen handiagoa dute; horrek, agintariekin harreman onari lotuta, gizarte kohesio handiagoa ekarri du.

Gainera, adivasi komunitateetako gizon-emakumeek **sentsibilizazio hitzaldiak** jaso dituzte giza eskubideak eta adivasi kultur nortasuna sustatzearen inguruan. Sentsibilizaturiko biztanleek Estatuak eginiko konpentsazio politika salatzeko mobilizazioak antolatu dituzte; izan ere, politika horrek bitzita duinerako eta ura eta lurra izateko eskubideen aurka egiten du. Adivasi kultur eta gizarte adierazpen